

# Itzulpengintza hiztegi-gintzaren ikuspegitik: arazoak eta konponbideak

MIKEL MORRIS

Azken urteetan, ikaragarri aldatu dira hiztegi-gintza eta itzul-pengintza Euskal Herrian. Oso ikuspegi berezia daukat gaiaz, erabat bitxia ez esatearren, bai itzultzaile bezala, bai hiztegi-gile bezala, bai eta kanpotar bezala ere. Bi zatitan banatu dut artikulua ez-akademiko hau: 1.a, itzul-pengintzako arazo praktikoak; 2.a, euskarazko hiztegi-gintza vs. thailandierazko eta txinerazko hiztegi-gintza.

## **1. Itzul-pengintzako arazo praktikoak: ingelesetik euskarara**

### 1.0

Ingelesaren eta euskararen arteko itzulpenak ez dira aspaldiko kontua. Esan genezake aurreneko itzulpenak Edward Spencer Dodgson ingelesak egin zituela, Sebastian Mendibururen *Jesus-en compaÑiaco* (Donos-

tia, 1900) eta Bartolome Santa Teresaren *Euscal-errijetaco olgüeeta ta dantzeen gatz-ozpinduba* (Dodgson eta A. Campion, Durango, 1914) liburuen itzulpenak argitaratu zituenean.

Gero, Espainiako Gerra Zibila hasi aurretik, zenbait obra euskaratu ziren, hala nola Shakespeareren antzerkiak. Hala ere, XX. mendeko 70eko hamarkadan etorri ziren ahaleginik sendoenak, batua indartzen hasi zenean. Orain arte, ordea, gaztelaniatik itzuli dira obrarik gehienak euskarara, eta, hein txikiago batean, frantsesetik. Ez da harrizkeoa, Hego Euskal Herrian gaztelania baita kultura-hizkuntza bakarra. Egun, irakurle itzultzaileok ederki dakizuenez, itzulpen gehienak gaztelaniatik egiten dira: administrazio-agiriak, eskolako testu-liburuak eta, noizean behin, literatura-testuak.

Bitartean, ingelesa bihurtu da munduko hizkuntzarik garrantzitsuen, eta, goiz edo berandu, nire uste apalean, ingelesetik egingo dira itzulpenik gehienak euskarara ere, ez espainieratik, ingelesez jorratzen baitira nagusiki zientziak, arteak, literatura, etab., ez espainieraz edo frantsesez. Dena dela, orain ingelesetik, gaztelaniatik eta frantsesetik itzultzen dugu batik bat; etorkizunean, ordea, beste hizkuntza batzuetatik ere aritu beharko dugu: txineratik, adibidez.

### 1.1 Arazo praktikoak

### 1.2 Hiztegiak

Munduan zehar, hiztegi-gintza elebiduna oso jarduera espezializatua da, eta, jakina, oso jende gutxi aritzen da horretan. Ongi aztertuta, hiztegi on eta fidagarri gutxi da munduan. Normalean, hizkuntzarik handienek izaten dute hiztegi-gintza-tradiziorik zaharrena eta oparoena. Faktore asko dauka horren atzean: dirua, azpiegitura, jende prestatua... Bizitzan zehar, dozenaka hiztegi erosi, irakurri eta aztertu ditut, eta, nire iritzian, Ingalaterran, Alemanian, Frantzian, Errusian eta Japonian dituzte hiztegi-gintza-tradiziorik onenak. Hiztegi-gintza elebiduneko Espainiako tradizioa ez da oso ona, baina orobat esan daiteke Estatu Batuetako tradizioaz ere.

Jakina, egin dira zenbait hiztegi on Ingalaterrako, Alemaniako, Frantziako, Errusiako eta Japoniako tradizioetatik kanpo ere, baina hiztegi bakar batek ez du osatzen tradiziorik. Adibidez, Robert Young-en *The Navajo Language: a grammar and colloquial dictionary* lan bikaina da. Gauza bera esan

daiteke C.M. Doke-ren *English-Zulu dictionary* lanari buruz.

Euskal Herriko tradizioari dagokionez, ez dago asko esan beharrik. Ez da gehiegi egin; batik bat, inguruko erdarekin konparatuz gero. Oso jende gutxi, edo argitaletxe gutxi, egiten ditu hiztegi elebidunak Euskal Herrian era jarraituan (hots, noizean behin argitaraldi berriak ateratzen dituztela): Elhuyarrek, Bostak bat-ek, Morris Academy Press-ek... Jarduerari begiratuta, honako hauek ditut kezka nagusiak: hiztegi-tamaina, administrazioaren laguntza urria, argitaletxeen arteko koordinaziorik eza, argitaratzaileen edo erakundeen arteko harremanik eza...

Euskal hiztegi-gintzaren eremua nahiko txikia da. Hor, gainera, arazo bakarra ez da euskaldunen kopuru txikia. Gutxi espero izaten da, eta gutxiarekin etsitzen du hementengo askok. Esate baterako, nire hiztegia argitaratzeko Elhuyarrek negoziatzen ari nintzela, hiztegi txikia bakarrik atera nahi zuten. Hiztegi handiagoa, hots, *Morris Student* handiegizat zeukaten, eta esan zidaten agian geroago argitara zitekeela. *Morris* hiztegiak argitaratu aurretik, merkatuaren tamaina txikia izan zen oztoporik handiena.

Egun ere, Hegoaldeko euskaldunak pozik dira Euskal Herrian edo Espainian egiten denarekin. Elhuyarren hiztegia oso handia iruditzen zaio euskaldun askori; Oxford-en Espainiera-Ingelesa hiztegiarekin konparatuz gero, ordea, ez da hain handia. Aski da “coger”, “mucho” edo “sacar” adierak hiztegi bietan konparatzea. Elhuyar hiztegiak “contráctil” edo “radiogoniometría” bezalako termino asko baditu ere, erabilera handiko adierak ez ditu behar bezala garatu.

Bego argi: ez naiz ari Elhuyarrak egindakoa maiseatzen, konparaketa egiten baizik.

*Morris Student Plus* hiztegiak ere bekatu bera du (Elhuyarrena baino txikiagoa da, gainera). Orain gutxi arte, ordea, ez geneukan hura behar bezala handitzeko dirurik, Espainiako Parlamentuak horretarako dirulaguntza onartu zuen arte. Horrela sortu zen *Morris Magnum* hiztegia. Hutsune bat zegoen, eta hura betetzea izan zen asmo nagusia. *Magnum* handituaren bigarren argitaraldia abian da une honetan.

Edozein itzultzailek ongi dakienez, hiztegi ona eta osatua behar da itzulpengintzan, itzulpengintza araupetzen baitu, eta itzultzaileen lana errazten. Hizkuntza behar bezala garatuek “intertranslatability” (hizkuntzen arteko itzulgarritasuna) daukate. Tasun hori ez duten hizkuntzek, aldiz, desabantaila izugarria daukate. Hizkuntza garatu horien mailara heltzeko, ezinbestekoa da hiztegi elebidun handiak eta oparoak sortzea eta mantentzea. Orain arte, Eusko Jaurlaritzaren irtenbidea irtenbiderik eza izan da. Hiztegegintza ez zen lehentasuna haientzat, eta garbi aitortu zidaten; behin baino gehiagotan, gainera. Oraingo Jaurlaritzarekin, agian aldatuko da hori, baina lehengoekin horrelakoxea izan zen politika edo, hobeki esanda, politikarik eza. Katalunian, aitzitik, badakite hiztegegintza elebiduna garrantzitsua dela, eta mota guztietako hiztegiei laguntzen diete, baita sanskritoazkoa, hungarierazkoa edo beste edozein hizkuntzatakoea bada ere. Tamalez, Euskal Herrian “plangintza” ugari dago, baina “egintza” gutxi.

Arauei edo arazo terminologikoei dago-kienez, Euskal Herriko argitaletxeek nahiz erakundeek lankidetzat urria dute beren

artean. Euskaltzaindiaren aldetik, esate baterako, ez dut behin ere ezer entzun zenbait arazori buruz; adibidez, atzerriko alfabetoen transliterazioari buruz. Horrelako arazoak edo auziak eztabaidatzeko, ez da inongo forumik. Dena atearik itxita erabakitzen da, publikoaren parte-hartzerik gabe. Lankidetzarik edo eztabaidarik gabe, ordea, endogamia txokozalea izaten da ondorioa.

Azkenik, beste arazo bat aipatu nahi dut. Euskara bera ez da seriozki hartzen euskal gizartean. Duela gutxi hasi ziren zer edo zer egiten zinpeko itzultzaileak sartzeko. Harri-garria. Kataluniak aspaldi konpondu zuen hori. Euskarazko itzulpenak ez dira behar bezala bultzatzen eskoletan. Hori aski ez dela, batzuek uste dute gainera gaztelaniazko itzulpenak euskarazkoak baino hobekak, edo askoz hobekak, direla!!! Hori gezur galanta bada ere, ez da gehiegi gezurtatzen. Gainera, *bestseller* berriak ez dira sortu eta berehala euskaratzen. Harry Potter-en itzulpenak beti beranduago agertzen ziren euskaraz, espainieraz edo frantsesez baino. Nik dakidanez, *The Da Vinci Code* ez da euskaratu, eta egin bada ere, zergatik ez zen egin obra berria zenean?

Asko hitz egiten da etorkinak euskarara erakarri beharraz, baina ez da ezertxo ere egiten haien hizkuntzekin. Zergatik ez da errumaniera-euskara hiztegi onik, edo txinera-euskara hiztegi onik, edo portugesa-euskara edo, zergatik ez, wolofera-euskara hiztegi onik? Jakina, Eusko Jaurlaritzaren jarrera eta euskararen merkatu urria ikusirik, etorkinek gaztelania hautatzen dute euskal gizartean integratzeko.

## 1.2 Zenbait konponbide

Demagun mundu perfektu batean bizi garela. Demagun Euskal Herriak gobernu on, eraginkor eta argi bat duela. Demagun euskalgintzak ikuspegi kosmopolita eta ireki bat duela, eta gauzak egiteko grina. Horrela balitz, konponbide anitz izan litezke euskara behar bezala garatzeko. Hori gerta dadin, dirua jarri behar da, eta denbora. Itzultzaile taldeak sortu behar dira, eta hizkuntza-pareka antola litezke. Talde bakoitzean, hizkuntza bakoitzeko natiboak leudeke. Taldeko kideek ongi lekizkete bi hizkuntzak, eta, gaztelaniara eta frantsesera ez ezik, beste hizkuntza batzuetara ere joko lukete, datu-base oparo bat biltzeko.

Eusko Jaurlaritzak (edota Foru Aldundiek) euskal corpus osoa garatzea izan behar luke lehentasunetako bat, eta erakunde pribatuek lagundu behar liokete. Ari dira corpora garatzen une honetan, baina ez kanpora begira, egindakora begira baizik. Hori ere garrantzitsua da, baina ez nahikoa. Lehentasuna zein hizkuntza pareri eman behar zaion litzateke beste auzi bat. Gaztelania eta frantsesa izan arren Euskal Herriko hizkuntza nagusiak, ingelesa-euskara pareari eman behar zaio lehentasuna, ingelesa baita munduko estandarra. Ekialdeko European, komunismoa erori ondoren, hizkuntza horri eman zioten lehentasuna terminologia garatzeko, ingelesez asmatzen eta argitaratzen baitira zientziako eta teknologiako gauzarik gehienak. Jakina, gaztelania-euskara eta frantsesa-euskara pareak ere ongi garatu behar lirateke; administrazio-kontuetarako, batik-bat, eta legearen alorrean, halaber. Gainera, beste hizkuntza pare batzuk ere sor

daitezke: alemana-euskara, italiara-euskara, errusiera-euskara, txinera-euskara, etab.

Euskal corpora behar bezala garatzeko eragozpenik handiena, haatik, euskaldunen mendetasuna da. Euskal herritar askok Oxford English-Spanish dictionary, Collins English-Spanish dictionary eta antzekoak miresten dituzte, baina haietako gutxik dute Asian egindako hiztegi bikainen berri. Haietatik, honako hauek aipa ditzakegu, adibidez :

– Kenkyusha’s New English-Japanese Dictionary on Bilingual Principles

– Vaccari’s standard English-Japanese dictionary

– 21 世纪大英汉词典 / The 21st Century Unabridged English/Chinese Dictionary,

– 英汉大词典 / The English-Chinese Dictionary.

Goian aipatutako “21 世纪大英汉词典 / The 21st Century Unabridged English/Chinese Dictionary” hiztegiak 2.400 orrialde baino gehiago ditu, eta orrialde bakoitzak, hiru zutabe, oso letra tipo txikian idatzita. Horrelako hiztegi mardulak ikusirik, zergatik miretsi hainbeste Oxford-en edo Collins-en hiztegiak? Euskara hizkuntza zurtza denez, euskaldunek kanpora begiratu behar dute eredu bila: Europara, Amerikara eta Asiara.

Zergatik dira hiztegi horiek hain handiak? Txinera eta japoniera oso hizkuntza desberdinak direlako. Hango hiztegiak ohartu ziren lehen aipatu “intertranslatability” hori iristeko ahalegin handiak egin behar zituztela. Hiztegiak doakionez,

lehentasun osoa eman zioten ingelesari. Hango frantsesa-txinera edo gaztelania-txinera hiztegiak askoz txikiagoak dira.

Tamalez, eta ikusiak ikusita, ez zait iruditzen euskaldunek ingelesa lehenetsiko dutenik euskal corpus osoa garatzeko. Nahikoa dute gaztelania, nonbait, oinarritzat.

### 1.3 Hiztegiaren arazorik handienetako bat

*Morris Magnum* hiztegia egitean, hizkuntza maila apala adieraztea izan dut buruhausterik handienetako bat. Euskara oso formala eta dotorea izan daiteke, batik bat erlijio-testuetan:

As we commemorate the birth of Jesus Christ two millennia ago, we offer our testimony of the reality of His matchless life and the infinite virtue of His great atoning sacrifice.

Orain bi mila urte izan zen Jesu Kristoren jaiotza. Hori ospatuz, haren bizitza paregabearen errealitatea eta haren ordain- opari handiaren indar mugagabea aitortzen ditugu.

Behe mailako jardunetan, ordea, biziki zaila izan zait batzuetan euskal ordain jatorrak ematea. Euskal hiri-giroan, gainera, zail da erregistro hori topatzen. Goiko testu erlijiosoarekin konparatzeko, ikus dezagun zer egin den *Magnum*-en *fuck* "famiolarekin". Oso adiera arruntak dira. Hona jarraian batzuk; ez lizunkeria bultzatzeko, baizik eta arazo batzuk nabarmentzeko. Horrela ikusiko duzue nola konpondu diren (edo ez).

*fuck* iz. (Vul.) 1. a. larrualdi, txortaldi, zakilkada, adarkada, buztankada, eztenkada; **to have a ~** larrua jo; txortan egin [adarra sartu; buztankada eman; odolkia eltzean

sartu; txitxarroa sartu; isipua dantzatu (Vul.); **Sally's a human being; she needs a good ~ just like anyone else** Sally gizakia duk: zakilkada on bat behar dik, guztiak bezalaxe | Sally gizakia duk: txortaldi on bat behar dik, edonork bezala; **when was the last time you had a ~?** Noiz aritu hintzen larrutan azkeneko aldiz? | noiz egin huen txortan azkena?

2. a. (p.) (s) **he's a good ~** hura larrujotzaile ona duk; hark bazakik txortan; hura ona duk larrutan; **your friend Joan is a better ~ than you are ... and she's a lousy ~** (> David Mamet) hire adiskide Joan hi baino hobe da dun larrutan ... eta hura larrujotzaile negargarria dun b. (= *guy*) **you're one sick ~** putakume ero bat haiz; **you stupid ~!** putakume zozo hori! | astazakil hori! | tontolapikotzar hori! | kaiku arraio hori!; **don't get smart with me you young ~!** ez gero askarkerian hasi nirekin, mukizu putakume hori!

3. (*hitzen bat ordezkatzeko*) **~ knows what they wanted that for** ostiak zakik zertarako nahi zuten hura; **thank ~ for that** eskerrak, alazankoa!; gaitz erdi, puta!; **it sure as ~ better work** arraioak hobe dik ibiltzea, puta, hobe duenez!; **just shut the ~ up!** isiltzeko, puta ostia! (Vul.)

4. (*indartzeko*) a. (+ *where, what, e.a.*) **where the ~ are they?** non ostia daude? | non puta daude? | non deabru daude? (Vul.); **who the ~ is he?** nor ostia da hori? | nor puta da hori?; **okay, do it your way, what the ~!** ederki, egin ezak heure eran, zer ostia! (Vul.); **they got everything; sticks, knives, pistols, ... who knows what the ~ they've got** haiek dena zaukatek: makilak, aitzoak, pistolak... auskalo zer puta daukaten; **you're seeing a lot of that girl. But what the ~, that's your business, ain't it?** askotxotan ari haiz ikusten neska hura. Baina, zer [ostia \$\$ puta], hire ardura duk, ezta?

b. (*irud.*) A: **what am I going to tell Mary?** B: **tell her to take a flying ~** A: zer esan behar diot Maryri? B: esaiok joan dadila popatik hartzera; **I don't give a flying ~** ez zaidak putzik ere inporta | ez zaidak ostiarik ere axola | kaka axola niri!; **I don't give a ~ who it is** ez zaidak putzik ere axola nor den | ez zaidak pitorik ere inporta nor den; kaka axola niri nor den!

- ad/irk. (Vul.) 1. (Vul.) -(r)ekin larrua jo (Vul.), -(r)ekin txortan egin (Vul.); **Mary, Kerry, Shirley, Sally... Jack's ~ed them all** Maryri, Kerryri, Shirleyri, Sallyri... Jackek guztiei jo ziek larrua | Maryri, Kerryri, Shirleyri, Sallyri ... Jackek guztiei sartu ziek adarra; Maryrekin, Kerryrekin, Shirleyrekin, Sallyrekin... Jackek guztiekin egin dik pottoan; **Jack ~ed Shirley** Jackek larrua jo zioan Shirleyri | Jackek larrutan egin zian Shirleyrekin | Jackek eztena sartu zioan Shirleyri; **you don't love me, you just want to ~ me** (> Lenny Bruce) ez nauzu

maite, larrua jo nahi didazu bakarrik; ~ **me harder!** (> Charles Bukowski) jo idak gogorrago!; **go ~ yourself!** hoa popatik hartzera!; hoa ipurtzulotik hartzera!; hoa ipurditik hartzera!

2. (*irud.*) a. izorratu; **I guess we're really -ed now** uste diat benetan izorratuta gaudela oraintxe; **that mother-fucker totally -ed me** putakume hark zeharo izorratu ninduan; **I got -ed at the used car lot** ederki izorratu nindutean bigarren eskuko autoen saltokian; **well ~ a duck!** puta arraioa!

b. (*nazka adierazteko*) ~ **you!** izorra ha'i | hoa popatik hartzera! | hoa ipurtzulotik hartzera! | hoa kaka egitera! | kaka hiretzat!; ~ **this shit!** utikan kaka zahar hau! | popatik hartzera kaka zahar hau! | doala pikutara kaka zahar hau! | haizea hartzera kaka zahar hau!; **what if the neighbours see?** — ~ **the neighbours!** eta auzokoek ikusiz gero? — popatik hartzera auzokoak!; **A: what about our profits B: ~ your profits!** A: eta gure irabaziak? B: popatik hartzera zuen irabaziak!; **business bad? ~ you, pay me now** negozioa gaizki? hoa popatik hartzera!; paga idak oraintxe; **A: ah ~ it! B: sure! ~ it! that's your answer to everything!** A: a, popatik hartzera! B: bai! popatik hartzera! --- horrekin konpontzen duk dena!; ~ **the fuck-ing fuckers!** popatik hartzera putakume puta haiek!

- *adlirg.* I. (Vul.) larrua jo U, larrutan {egin \$\$ aritu \$\$ ibili} txortan egin; **Shirley ~s Shirleyk** larrutan egiten dik; **Shirley txortan aritzen duk; they were busy -ing in the backseat of the car** jo ta su larrutan ari zituan autoko atzeko eserlekuan; **you have this idea that every truck driver is -ing up a storm from coast to coast, right?** (> Kurt Vonnegut) hiri iruditzen zaik kamioilari guztiak jo ta larrutan aritzen direla bazter guztietan, ezta?

2. (*irud.*) **don't ~ with me you little prick!** ez gero ni izorratu, zapo hori!; ez gero niri adarrik jo, kakazu hori!; **we're ruthless and mean and so don't ~ with us** errukigabeak eta gaiztoak gaituk, eta, beraz, ez gu izorratu; **are you -ing with me here?** — **I'm not -ing with you, Donny!** ni izorratu nahian al habil? — ez nabilek hi izorratu nahian, Donny!; niri ziria sartu nahian al habil? — ez nabilek hiri ziria sartu nahian, Donny!

- interj. (Vul.)-! kaka!

, **fuck around** (Vul.) [*ad. + adb.*] (Vul.) 1. potrojorran egon, txoroarena egin (Vul.); **hey, will you stop -ing around and do something?** aizak, utziko diok potrojorran egoteari eta hasiko haiz zerbaitetan?; **quit -ing around with that switch and pay attention** utziok giltza horrekin txoroarena egiteari eta hago adi

2. txoroarena egin; **that's means that you'd better not ~ around with them because they're friends of the local mafia** horrek esan nahi dik hobe duala haiekin ez

txoroarena egitea, hemengo mafiaren lagunak dituk eta; **this is your life that you're -ing around with, which you shouldn't be doin' 'cuz you've only got one** (< Pulp Fiction) heure biziarekin habil txoroarena egiten, eta ez huke egin behar behar, bakarra daukak eta

, **fuck off** (Vul.) [*ad. + adb.*] ~ **off!** hoa popatik hartzera! | hoa ipurtzulotik hartzera! | hoa kaka egitera! | hoa haizea hartzera! | hoa zakurraren ipurdira!; **I don't ever want to see you again so will you ~ off back downstairs?** ez haut berriz ikusi nahi: beraz, joango haiz popatik hartzera atzera behera?; **can I go home now?** — **yeah, ~ off and don't do that again!** joango naiz etxera orain? — bai, ostia, joan!, eta etzak hori berriro egin!

, **fuck out** (Vul.) I. [*ad. + obj. + prep., ad. + prep. + obj.*] **they -ed me out of 6,000 dollars** 6.000 dolar izorratu zizkidatean

, **fuck over** (Vul.) I. [*ad. + obj. + prep., ad. + prep. + obj.*] **that asshole's been -ing us over ever since I can remember** mokordo hura gu izorratzen aritu duk gogoratzen dudanetik; **they were so accustomed to being used and -ed over that they wouldn't complain** hain ohituak zeudean erabiliak izaten eta popatik hartzen, ez baitzuten hasererik agertzen

, **fuck up** (Vul.) I. [*ad. + obj. + prep., ad. + prep. + obj.*] izorratu, hondatu, okertu, kakaztu; **I hate doing dishes. It ~s up my nails** gorroto diat ontziak garbitzea, azazkalak izorratzen zaizkidak; **those multinationals aren't satisfied with -ing the Earth up, they've gotta ~ up space and all multinational horiek ez ditek aski Lurra izorratzea, espazioa eta dena izorratu behar ditek; they say the world is coming to an end and that's why it's so -ed up** mundua azkenekotan omen duk eta horregatik omen zagok hain izorratuta

II. [*ad. + adb.*] **he's -ed up again!** izorratu dik berriro!; **I -ed up, Frankie. I -ed up good this time** izorratu diat, Frankie; erabat izorratu diat oraingoan

**fuck-all / iz.** (Vul.) **he knows ~ about it** hark kaka zakik horretaz | hark puta zakik horretaz; hark ostia zakik horretaz 8; **you've done ~!** kaka egin duzue zuek!; puta egin duzue zuek!; **there's ~ to do around here** kaka zagok egiteko hemen!; puta zagok egiteko hemen!; **politics is about money and power and it's ~ to do with morality** politikak diruarekin eta boterearekin dik lotura, eta kaka ostiarik ere ez moralasunarekin

**fucker** iz. (Vul.) kabroi, putakume, urde, zerripotro, zerripuska, potroso (Vul.); **I'm going to kill the ~!** akatu egin behar diat kabroia!; **you lazy ~!** kabroi alfer hori! | alfer gorotz hori!; **I kind of feel sorry for the poor ~**



pena pixka bat ematen zidak kabroi gizajoak; **I'm comin' outta here and any ~ I see out there, I'm gonna kill him** hemendik irtetera noak, eta kabroiren bat ikusten badut kanpoan, akatu egingo diat; **which one of you ~s owns this shithole?** (> Unforgiven) zuetako zein putakumena da kakatoki hau?; zuetako zein kabroi da txerritoki honen jabea?

**fucked-up** adj. kakazahar, ustel, negargarri, nazkagarri; **that was about as ~ a come-on as I ever saw** hura izan zuan sekula ikusi dudan neskatan egiteko saiorik kaka-zaharrena;

**fuckface** iz. (Vul.) zakil, zakilote; **come here, ~!** hator hona, zakilote!

**fuckhead** iz. (Vul.) kirten, artaburu, kaiku, tontolapiko; **who was he? — some stupid back-country ~ with a rifle** nor zen hura? — landatar artabururen bat, errifle batekin

**fucking** iz. [Z] larrutan-egite, txorta-jotze; **all Nicole does is think about ~ larrutan egitea** besterik ez dik buruan Nicolek | **zakilkada on batzuk hartzea** besterik ez dik buruan Nicolek.

- *adj.* (Vul.) 1. **this ~ machine** makina puta hau | makina putakume hau | makina ostia hau | makina madarikatu hau | makina kakalardo hau! | makina kakazahar hau! | makina arraio hau! | makina alu hau (Vul.); **what a ~ shambles!** hau anabasa putea!; hau kaka-nahaste zikina! (Vul.); **it's ~ cold** hotz putakumea zagok | hau hotz putasemea! | bai hotz putea!; **it's ~ useless** ez dik puta ostiarik ere balio | ez dik putzik ere balio | alfer-alferrik duk, ostia (Vul.); **you ~ idiot!** kaiku putakume hori! | zozo ostia hori! | hontz buruhandi hori!; **the ~ government takes all the money in taxes;** gobernu putakumeak diru guztia bereganatzen dik zergen bidez; **I'm in a bad ~ spot here** egoera zeharo putean nagok oraintxe | ataka putakumean negok oraintxe; **he could really shine shoes, I mean, he'd make your shoes look like ~ mirrors. Excuse my language** bazekian zapatak zirutzen; alegia, ispilu puta batzuk bezala uzten zitian zapatak. Barka nire hizkera; **what is this, a big ~ deal?** zer da, putakeria larria?; **she needs a ~ doctor!** mediku bat behar dik, ostia!; **if you ever ~ touch her again, if you ever do anything like that again, I'll ~ kill you** hari sekula hatz puta bat eransten badiok atzera, sekula halakorik egiten baduk berriro, jo ta puta akatuko haut; **pure and simple. Do you hear me? pure and ~ simple** argi eta garbi. Aditzen didak? argi eta puta garbi

2. **he had better ~ watch out** hobe dik kontu puta

handia izatea | hobe dik erne demonio ibiltzea; **I know what he said because I was ~ well there. I am the crap-head he ~ well said it to bazakiat zer esan zuen, hantxe puta nengoan eta. Neu nauk hark jo ta ostia esan zion mokordoa; he was, like, coming up the ~ hill when he ~ fell down** bazetorreen, zera, aldapa putan gora, eta jo ta ostia erori zuan

3. (*bitzen morfemen artean*) **it's un-fucking-real!** arraioa!, hau ez duk sinestekoa!; ostia, hau ez zagok sinesterik!; **A: is it fun? B: abso-fucking-lutely!** A: barregarria al da? B: bai alaputea!; **that's un-fucking-believable!** arraioa, hau ez duk sinestekoa!; ostia, hau ez zagok sinesterik!

**fucking** A adb. 1. (z.tx.) arraio putea, puta ostia 2. (z.o.) arraioa!

**fuck-off** (Vul.) iz. mokordo, alproja, alferrentzi, ustel

; **he's a regular ~** mokordo hutsa duk; erabateko alproja duk

**fuck-up** (Vul.) iz. kaka pila, kaka zahar, mokordo; **he is one of the most useless and unreliable ~s in town** hura herriko kakalardorik gauzaezenetako eta ustelenetako bat duk

**fuckwit** (Vul.) iz. kaiku, zozo, tontolapiko, lukainka, babo, hontz

**motherfucker** iz. (Vul.) 1. (p.) a. (oro.) putakume, kabroi, urde, zerri; **the AK-47, the very best there is. When you absolutely, positively gotta kill every ~ in the room, accept no substitute** (> Jackie Brown) AK-47a, inon den onena. Gelan diren putakume guztiak argi eta garbi hil behar dituanean, etzak ordezkorik onar; **that guy's one tough ~, let me tell you!** mutil hura putakume indartsua duk gero, bai horixe!; **LeRoy's one big ~** LeRoy putakume ikaragarria duk | LeRoy putakume galanta duk; LeRoy egundoko putakumea duk | LeRoy putakumetzar bat duk

b. (= idiot) **he descended from the black tribe that established the first society on earth while all you European ~s were all hiding out in caves and shit, terrified of the sun** hura Lurreko lehen gizartea sortu zuen tribu beltzetik zetorreen, eta zuek, europar putakume guztiok, harpeetan eta ostiatan zeundeten ezkutatuta, eguzkiaren ikaraz

c. (iraintzeko) **you cock-sucking ~!** putakume kabroi hori! | putakume zerri hori!; **give me the money or else I'll blast you, ~!** emaidak dirua edo tiroz josiko haut, putakumea!

2. (zerbait) I got this in a knife fight. Just look at that ~! (showing a knife wound) aizto borroka batean egin zidatean hau. Begiraiok putakumeari! (aizto zauri bat erakusten duela)

motherfucking adj. (Vul.) putakume, putaseme, puta; ‘cuz me, once I decide I want something, there ain’t a goddam ~ thing that’s gonna stop me from gittin’ it! (< Jackie Brown) izan ere, gauza bat nahi dudala buruan jartzen zaidanean, ez duk ezer puta madarikaturik hura eskuratzea galaraziko didanik!; you ~ cocksucker! kabroi putakume hori! | urde zerri putakume hori!; now I’m gonna kill all the white folks I lay my ~ eyes on! (< Chasing Amy) orain begi puta hauekin ikusten ditudan zuri guztiak akatu behar ditai!

Nire iritzian, euskaldun gehienek ez dakite hitz gorriak esaten; ez Espainiako erdaldunek bezain trebeki eta maiz, behintzat. Halere, guk horrelakoak eskaintzeko ahalegin bat egin dugu. Noski, irakurleek hobeto egin badezakete, arren, jar bitez nirekin harremanetan.

## 2. Euskal hiztegi gintza vs. thailandierazko edo txinerazko hiztegi gintza

### 2.0

2003an, zenbait gertakariren ondoren, inoiz baino hobeto jabetu nintzen hemengo egoeraz. Euskal Herriko zenbait pertsonaren txokokeriarekin etsirik, euskaldun askoren axolagabekeriak jabeturik, eta garbi ikusirik, bestalde, ez zela niretzako lekurik, ez hemengo unibertsitatean, ez erakunde euskaltzaleetan, ez euskalgintzan, Euskal Herritik kanpora begiratzea erabaki nuen. Gutxiengo-hizkuntzen gorabeherak alde batera utzi nahian, Asiar jo nuen. Herriaren historiagatik eta bertako alfabeto polit-politagatik —hori ere aitortu behar da eta—, thailandiera ikasten hasi nintzen.

Euskalgintzak lur jota utzi baninduen ere, hiztegi gintza poz-iturri zitzaidan. Horregatik, thailandiera-ingelesa hiztegi bat egiten hasi nintzen. Handik laster, txinerazko bati ere ekin nion.

### 2.1 Thailandiera

Badira thailandiera-ingelesa hiztegi ugari, baina gutxi, onak. Mary Haas-en *Thai English Students’ Dictionary* oso ona da, haren xedea hartzen bada kontuan. Ingelesdunek thailandiera ikasteko egin zuten, baina 1964an argitaratu zen. Harrezkero, ez da gauza handirik egin. Jakina, thailandieradunentzako hiztegi anitz argitaratu dira, baina ez dira, nire uste apalean, oso serioak. Hemengoen “bekatu” berak dituzte; esate baterako, adieretan hierarkiarik ez, esaldi-argibide gutxi, kaleko hizkera gutxi. Oxford-ek 2006an atera zuen bere ingelesa-thailandiera hiztegia, eta, egia esan, orain arte egin den onena da; edukiari dagokionez, ordea, anglozentrikoa edo eurozentrikoa da. Ingelesdunentzat oso baliagarria dela badiote ere, garbi dago thailandiarrentzat egin zela, nahiz eta anglozentrikoa den. Hiztegi hori Oxford hiztegien ereduaren arabera egin zuten, baina Thaiandiako kultura edo historia gehiegi baliatu gabe, bistan denez.

Thailandierazko aurreneko “oztopoa” bertako alfabetoa da. Indiakoa, jatorriz. Hasteko, “abiguda” alfabetoa da, hau da, silabak dauka lehentasuna. Bestela esanda, dena silabaren inguruan eratzen da, eta kontsonantea da oinarria. Adibidez ๓ letra, “m” bezala ahoskatzen da, baina bokalak ondoren, gainean, azpian edo aurrean ager daitezke.



มา maa  
มู muu  
มี mii  
เม mεε

Hori aski ez dela, transkribatzeko sistema ugari da gainera. Honako hauek erabiltzen dira gehien:

- Royal Thai General System of Transcription (RTGS)
- Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa (IPA)
- “Paiboon Publishing” argitaletxeak diseinutako sistema (Paiboon)
- David Smyth-ek “Teach Yourself Thai” liburuan erabili zuen sistema (Smyth)

Honela ikus daitezke desberdintasunak:

เพื่อน ๆ เราที่ไม่ดีก็มี ที่ดีก็มี

(Gure lagunen artean, batzuk gaiztoak dira, batzuk onak)

phúean-phúean rao thí mâi di kô mi thí di kô mi (RTGS)

p<sup>h</sup>uan-p<sup>h</sup>uan rau t<sup>h</sup>i: mâi di: kô: mi: t<sup>h</sup>i: di: kô: mi: (IPA)

p<sup>h</sup>ân-p<sup>h</sup>ân rao tîi mâi dii g<sup>o</sup>ó mii tîi dii g<sup>o</sup>ó mii (Paiboon)

pêuan-pêuan rao têe mâi dee gôr mee têe dee gôr mee (Smyth)

Tarteko sistema bat hartzea erabaki nuen, zenbait gauza aldatzen nituela.

เพื่อน ๆ เราที่ไม่ดีก็มี ที่ดีก็มี

p<sup>h</sup>ân-p<sup>h</sup>ân rao tîi mâi dii g<sup>o</sup>ó mii tîi dii g<sup>o</sup>ó mii

Thailandiako unibertsitateetako irakasle eta ikasle batzuekin ari naiz lanean. Hemen ez bezala, diru pixka batekin gauza asko egin daiteke han, baldin eta bertakoak ongi ezagutzen badira. Nire laguntzaileak milaka esaldi ari dira biltzen, gero hiztegian sartzeko. Esaldi asko Thailandiako egunkarietatik ateratzen dira; beste batzuk, eleberrietatik edota administrazio-agirietatik.

Eginak eginda, eta aztertuak aztertua, baieztapen bat egin dezaket lasai asko. Askoz errazagoa da thailandiera-ingeles hiztegi bat egitea, euskara-ingeles hiztegi bat egitea baino; nahiz eta Thailandiako historia guztiz bestelakoa izan, nahiz eta bertako erlijioa budista izan, nahiz eta landareak edo animaliak zeharo bestelakoak izan, askoz errazagoa da.

Badira makina bat arrazoi. Bakar batzuk bakarrik aipatuko ditut:

- 1.- Estandarra egina dago. Erabat araututa. Eta guztiek ez badute ere behar den doinuaz egiten thailandiera ofiziala, ongi ulertzen dute. Ez da hori euskararen kasua.
